


UBAKO ANDRE MARIAREN ELIZA
B MAILA

UBA BIDEA 37



Egile eta data ezezagunak.

Deskribapena

Eliza, eta honen gainean, adin gabeen erreformatario gisa erabiltzeko jasodura bat eraiki zuten aurrerago. Jatorrizko eraikuntza atzeman daiteke bertako teilatu hegalarari eta baoak bi mailatan dituzten harlangaitz horiei esker. Erreformatarioko obraren proiektua Ramon Cortazarrek egin zuen 1922an, Ubako zaharren etxearen aldaketa gisa. Elizaren gainean lan hori nabarmentzen da harriaren imitazio gisa agertzen diren fatxadako materialengatik, erlaitzeko enfasiagatik eta estilo menditarraren aldakuntza gisa kantoietako dorre txikiengatik. Elizak nabe estali bakarra du, ertz zarpiatuko bobeda, koro eta abside txiki batekin, pilastren ahokadura eta harlanduzko arkuia ditu, eta harriz egindako ertzeko bobeda batez estalia dago.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen B babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babestu gabeko elementuak: jatorrizko eliza bakarrik babesten da, eta ez 1922an handitutako zatia.
 - B.- Elementu iraunkorrak: kanpoko eta barruko harlanduzko eta harlangaitzezko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: Elizaren nabea jatorrizko elementuekin kontserbatuko da, aldaketarik gabe.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.